

10. (1421-1430)



10.1. 1421. URTEA

10.1.1. Bianaren bi aipamen

1421. urtean Gipuzkoan Fernando Perez Aiarakoak hartu zion txanda korrejimenduan Gonzalo Morori. Gipuzkoako merio nagusi ere bazen Aiarakoa; izan ere, azken kargu hau bere gain etenik gabe eduki zuen 1401-1436 bitartean¹.

Nafarroan, berriz, Karlos III.ak azken 20 urteetan luberri gehiegi egin zelako neurriak hartu zituen, baina luberrietako mahastiak errespetatu egin zituen. Lizarrako merindadean ardogintzako gune nagusia

Biana zen. Ardo onaren fama zuen Bianakoak.

1421. urtean, hain zuzen, Nafarroako Bianako Printzea jaio zen, Gaztelako Peñafiel-go gazteluan jaio ere. Blanka zuen ama, Nafarroako Karlos III.aren alaba, eta Joan II.a Trastamarakoa aita, gero Nafarroako eta Aragoiko errege izango zena (Nafarroako Joan I.a izan zen). Karlos izena ipini zioten jaioberriri, aitona erregearen ohorez. Blanka zen Nafarroako erreinuko oinordeko, eta hura lehen semea zenez gero, Karlos zen Nafarroako erreinua oinordetzan jasotzeko eskubidea zuena².

10.2. 1422. URTEA

10.2.1. Uzarraga, Deba, Nafarroa, etab.

1422-I-14rako Oñatiko Pedro III.a Belez Gebarakoa jauna hila zen; izan ere, egun hartan Gasteizen Pedro III.aren emazte Konstantza Aiarak (Fernan Perez Aiarakoaren alabak) Pedro, Isabel, Iñigo eta Maria seme-alaben tutoretza bereganatu egin baitzuen.

Urte hartan bertan Konstantza alargunari arazoa sortu zitzaion, orduan Bergarakoa zen Uzarragako San Joango elizan. Elizako patronatua 1305. urteaz gero gebaratarrena izan zen, baina Bergarako apaiz Fortun Martinez Gaztelukoak (zenbait pertsonak lagundurik) Martin V.a aita santuarengandik elizako patronatua bereganatzea lortu zuen.

10.1. irudia. Antzuola. Uzarragako eliza.



Konstantza Aiarakoak Joan Sotori, erregearen basailuari, ahalordea eman zion, erregearen Kontseiluan eskubide hura Konstantza eta Pedro IV.a Belez semearen eskuetara itzul zedin³.

Urte hartantxe Deban lehendik zeuzkaten Udalen Ordenantzei 48. kapitulua erantsi zieten. Zatika osatu eta emendatu zituzten zenbait urtetan Debako Ordenantzak⁴.

Bizkaian, berriz, Ermandadeak debekatu egin ziren erregearen aginduz. Lehen 1419. urtean Gaztelako Joan II.a erregeak Madrilgo Gorteetan emandako debekua berretsi egin zuen Ocaña-ko Gorteetan 1422. urtean⁵.

Nafarroan 1422. urte inguruan izurri beltzak kalteak eragin zituen⁶. Hala ere Karlos III.a erregea arduraturik zebilen Nafarroako armagintzaz. Lehendik

zenbait herrialdetako arma-maisuak ekarriak zituen, baina 1422. urtean kanoiak egiten zekienaren bila ibili zen². Aipatu dugu Gipuzkoan bi urte lehenago Ahaide Nagusiek bonbarda erabili zutela Loiolako eta Beasaingo Igartzako dorretxeen aurka.

1422. urtean Nafarroako erreinuko Blanka oinordekoaren Joan II.a Trastamarakoa infanteak (gero Nafarroako Joan I.a eta Aragoiko Joan II.a erregea izango zenak) Alvaro de Lunarekin batera Gaztelako Joan II.a bereganatu egin zuten, Enrike infantea baztertuta².

Zuberoako Altxurukun, Menantonen, Urrutia jauregiko zalduna eta Ahetzeko Domenja ezkondu ziren 1422. urtean. Senarra gero Zuberoako epaile izan zen, baina jeloskorra eta bihurria zen. Emaztea, berriz, zintzo eta samurra. Senar-emazteek izandako gorabeherekin “Ahetzeko anderia” izeneko koplak idatzi ziren⁷.

10.3. 1423. URTEA

10.3.1. Altxamendua Leintz bailaran. Iruñeko auzoak elkaturik

1423. urtean Konstantza Aiarak beste arazo bati egin behar izan zion aurre. Leintz bailarako jendea altxatu egin zen, eta ukatu egin zioten Oñatiko jaunari (Konstantzaren seme Pedro IV.a Belez Gebarakoa umeari) Leinzko nagusitza. Gebaratarrek elkartu eta Ahaide Nagusiaren aurkakoak garaitu egin zituzten. Zanpaketa gogor hartan soldadu gebaratarren buru Fernando Perez Aiarakoa (Gipuzkoako merio nagusia) ibili zen³.

Esan izan da urte hartantxe, 1423an, Arrasateko biztanleek gebaratarrek Zalgibarren zituzten burdino-la, dorre eta errotak eraitsi egin zituztela⁸, baina, dirudienez, Zalgibarko dorretxea hiru urte geroago (1426ko abuztuan) bota zuten².

Iruñeko hiria auzotan banatuta zegoen. San Zerningoa, hasieran, etorkinez populaturiko burgua zen, eta Nafarreriaren ondoan zegoen. San Nikolas auzo-

an merkatari eta artisauak bizi ziren, eta juduen auzo edo judutegia ere bazegoen Nafarreriaren ondoan. Historian zehar Iruñean auzoek elkarren arteko hainbat gatazka izan zuten, baina 1423-IX-8an Karlos III.a erregeak hiria batzeko pribilegioa argitaratu zuen. Handik aurrera Nafarroako Foru Orokorraz gobernatuko ziren denak. Hamar zinegotzi aukeratu zituzten urtero: bost San Zerningoak, hiru San Nikolaskoak eta bi Nafarreriakoak. Zinegotziek urtero hiru izen proposatuko zizkieten erregeari, alkatea hiru haietatik hauta zezan⁹.

Nafarroako Karlos III.a erregeak, inguruko erreinuetan bezala, noblezia sortu zuen, zenbait titulu emanaz. Titulu haietan Bianako printzerria zen gorena, erreinuko oinordekoari zegokiona. 1423. urtean sortu zuen titulu hura biloba Karlosi zegokion, Blanka alabaren semeari. Printzerriak Biana, Guardia, San Vicente de la Sonsierra, Agilar, Azkoién, Kadereita, Korella, Zentroniko eta beste hainbat herri zituen bere barrutian².



10.2. irudia. Iruñeko udaletxea.

10.4. 1424. URTEA

10.4.1. Nafarroako noblezia

Esana dugu Nafarroako Karlos III.a erregeak nobleei tituluak eman zizkiela. Bianako printzerria zen garrantzitsua, baina beste zenbait ere aipatzekoak dira. 1424. urtea baino lehen sasiko seme Godofre Korteko konde izendaturik zuen. 1424. urtean Godofreren sasiko bigarren alaba ezkondu zen Karlos

Beumontekin, hots, Durazzoko duke Luis infantearen sasiko semearekin. Orduan Nafarroako Karlos III.ak Leringo konde titulua eman zion sasiko biloba Joanari. Joanaren senarra, Karlos Beaumont, Nafarroako kondestable eta Leringo konde izan zen. Beaumontar izeneko bandoaren buru izan ziren Karlos eta ondorengoak. XV. mendean eta XVI.ean partehartze handia izan zuten Nafarroako anai arteko gerretan².

10.5. 1425. URTEA

10.5.1. Donostiako Kanpoko Ofiziala. Nafarroako erregearen heriotza

Gipuzkoan Zestoa eta beste hainbat herri Iruñeko elizbarrutikoak zirelako, apezpikuak “Kanpoko Ofi-

zuala” izeneko ipintzen zuen Donostian, Elizari zegozkion auziez arduraz zedin. 1425. urtean Martin Markina zen Kanpoko Ofiziala, eta epaitegia Donostiako jauregian zuen¹⁰.



10.3. irudia. Donostia.
Artzain Onaren katedrala.

1425-IX-7an Erriberrin Nafarroako Karlos III.a hil egin zen. Alaba Blankak eta honen senar Joaneke (gero 1458-1479 bitartean Aragoiko Joan II.a erregea ere izango zenak) hartu zuten erreinuaren gidaritza. Nafarroako Joan I.ak, Blankaren senarrak, dena den, interes handiak zituen Gaztelako erreinuan, eta laster joan zen hara Nafarroa gobernatzea Blanka emaztearen esku utzita². Orduan hasi ziren Nafarroan agara-

montarren eta beaumontarren arteko gatazkak. Agaramontarrek Aragoiko Joan II.aren alde egin zuten, eta beaumontarrek Karlos edo Bianako Printzearen alde¹¹.

1425. urtean, bestalde, Valladoliden gero Gaztelako Enrike IV.a erregea izango zena jaio zen urtarrilaren 25ean.

10.6. 1426. URTEA

10.6.1. Getariako Batzar Nagusiak, Arrasateko borrokak eta Iruñeko apezpiku berria

1426-V-16an Gipuzkoako Batzar Nagusiak Getarian bildu ziren. Bergarako prokuradoreak bertan parte hartu zuen¹², baina hortik aurrera deus gutxi dakigu Batzar haietan aztertu ziren gaiez. Orduan Diego Perez Sarmiento, Salinasko kondea, zen Gipuzkoako alkate nagusi⁵.

Garai hartan hiribilduek ere gerrarako prest izaten zituzten beren gizonak. Lantzariak eta baleztariak izaten ziren oinezko soldaduak, baina azkonak jaurtitzen zituztenak ere baziren. Suzko armak ere erabili ohi zituzten, setioetan batez ere. Batik bat bonbarda edo kalibre handiko kanoiaz baliatzen ziren.

Arrasatearrek, esaterako, 1426an Zalgibarko dorrea eraisteko erabili zuten bonbarda. Dorrea bereganatutakoan bertako lantza, balezta, ezkutu eta arti-

lleriaz jabetu ziren. Dorrera setioan azkon, gezi, harri eta artilleriako bolak botatzen zituzten. Ondoren su ematen zieten ateei, edo enborrez arieteak egiten zituzten atak lehertzeko asmoz.

Preso hartutakoei zer egiten zieten ez dakigu ezer asko, baina jauntxoek dorreak aurkako eraso bidez hartutakoan zorrotzago jokatzeko zuten, dorreak negoziatuta bereganatutakoan baino. 1426an arrasatearrek, adibidez, pozoituta hil zituzten Zalgibarko dorrean preso hartutakoak.

XV. mendearen hasieran Segurako hiribilduak 100-160 soldadu bildu zituzten Arieriako alkate Joan Perez Urbizukoaren aurka, baina Arrasaten Zalgibarko erasoan parte hartutako 38ren izenak baino ez daude agiritan, nahiz eta konpainia handia bildu zutela jakin¹³.

Gebaratarrek Arrasateko Zalgibarren (orain Zaldibar) erabiltzen zuten dorrea erregearena zen, eta erregeari leialtasun-zina eginda erabiltzen zuten haren



10.4. irudia. Arrasateko Zalgibar (orain Zaldibar). Debagoieneko Mankomunitatearen egoitza.

izenean. Dorrea zurezkoa zen, eta eraitsi egin zuten arrasatearrek 1426ko abuztuan. Gero erasotzaileak gebaratarrek Leintzen zuten Landaetako dorrea hartu eta eraitsi egin zuten¹⁴. Orduan Pedro IV.a Belez Gebarakoaren ama Konstantzak erregearen Gortean erasotzaileak salatu egin zituen, eta auzitegiak betiko deserriratu zituen Antequera hirira, mairuen mugako lurretara. Zalgibarko dorrea berri egin beharko zuten, eta sortutako kalteak ordaindu egin beharko zituzten. Arrasatearrek, gainera, ondasunen erdia galdu egingo zuten erregearen ganberaren mesedetan.

Arrasatearrek epaia jakindakoan gora jo zuten, erregearengana, baina erregeak eraturako epaimahaiak lehengo epaia, oro har, berretsi egin zuen, nahiz eta salatutako batzuei zigorra arindu. Badirudi auzia

bere bidea egiten ari zenean bi alderdiak elkarren artean konpontzen saiatu zirela³.

Urte hartan, 1426an, Lazkaoko eta Beasaingo Igartzako etxeetako zenbait ezkutarik Durangoko Martzana, Ibarra eta Etxaburu leinukoei desafio egin zieten, zeren eta aurreko urtean San Adriango mendatean bi etxe oñaztar haietako jaunei durangarrak segada egiten saiatu baitziren⁸.

Urte hartantxe, 1426an, Erromako Martin V.a aita santuak Martin Peralta “Zaharra” izendatu zuen Iruñeko apezpiku. Inola ere, Nafarroako Blanka erregearen eskariari erantzungo zion Aita Santuak. 1426-XI-10ean egin zuten apezpiku. Hark gidatuko zituen hamaika urtez Zestoako eta inguruetako elizak¹⁵.

10.7. 1427. URTEA

10.7.1. Apezpikua lanean, Ahaide Nagusiak desafioka, eta “Hansa” elkarteak

Martin Peralta “Zaharra” apezpikuak bazekien elizbarrutiko elizak bisitatu eta zaindu egin behar zituela. Horretarako, herrietara bere ordezkariak bidaltzeko baimena lortu zuen. Bestalde, apaizek ohaideak izatearen aurka lan egin zuen, nahiz eta lehenagoko urteetan presbiteroek ohelagunak edukitzea ohitura zabalduagoa izan¹⁵.

Gipuzkoan Gonzalo Moro izan zen 1427. urtean korrejidore¹, baina Ahaide Nagusiak harro zebiltzan elkarri desafioka. Horietako bat Azkoitiko Ladron Balda zen, zeinak Pedro Ibañez Ipintzakoa notarioaren aurrean Azpeitiko Enparango jaunari desafio egin baitzion⁵.

Bitartean, 1427an, merkataritza babesteko Europako iparraldean sortutako “Hansa” elkartearen parte hartu zuten Bizkaia, Gipuzkoa eta kostaldeko herrietako beste zenbait itsasontzik. “Hansa” elkarteak 1427an itsasontzi bizkaitarrak erabili zituen Frantzia,

Espainia, Ingalaterra eta Herbehereetatik Baltikora salgaiak garraiatzeko¹⁶. “Hansa” elkarteak XII-XVII. mende bitartean iraun zuen. Baltiko eta Ipar itsasoaren inguruko hiriek merkataritza sustatzeko sortu zuten. Hasieran Lübeck, Hamburg eta Koloniak osatu zuten elkarteak, baina gero, XIV. mendean, 70 baino hiri gehiago izan ziren elkartekide.



10.5. irudia. Azpeitiko Enparan jauregia.

10.8. 1428. URTEA

10.8.1. Nafarroa gerra-giroan

1428-II-16an Nafarroako Blanka erreginaren senarra, Nafarroako Joan I.a, Gaztelara itzuli zen nobleen buruzagi moduan. Apirilaren 12an Gaztelako Tordesillas-en Nafarroa, Aragoi eta Gaztelako erregeek ituna sinatu zuten elkarri laguntzeko. Egun hartan Nafarroako Joan I.ak Aragoiko erregea (Alfontso V.a anaia) ordezkatu zuen. Hala ere, Nafarroako Joan I.a Gaztelan egon zenean nobleziak,

bandotan zatituta, bidegabekeriak egin zituen. Orduan Blanka erreginaren senarrari Gaztela utz zezala iradoki zioten, eta Nafarroara erretiratu zen, agian Tordesillasko itunak emaitza onak izango zituen itxaropenetan.

Gaztelako erreinua laster hasi zen inguruko erreinuen aurka. Tordesillasko ituna berrestea atzeratu egin zuen, eta gerra-giroa gero eta nabarmenagoa zen².

10.9. 1429. URTEA

10.9.1. Zalgibar konpontzen, Lasturko Milia, itsasontziak gerrarako, etab.

1429. urtean hiru urte lehenago Arrasateko Zalgibar-ko dorretxean izandako gatazkaren ondorengo auzia ebatzi zen. Arrasatear erasotzaileek ituna egin zuten Oñatiko Pedro IV.a Belez Gebarakoaren ama Konstantza Aiararekin, eta erregeak gebaratarren eskariz barkamena eman zuen Burgosen, Cardeña-ko San Pedroko monasterioan, 1429-XI-12an sinatutako agiriaren bidez. Gebaratarrek Zalgibarko dorrea berre-raiki egingo zuten (harrizkoa eta zurezkoa), eta Arrasateko hiribilduak urrezko 2.000 florin emango zizkien (8 urteko epean). Gainera, dorrearen inguruan ez zen ezer eraikiko.

Leintz bailarakoak ere altxatuta zebiltzan 1423. urteaz gero gebaratarrak jauntzat hartu nahi ez zituztelako, baina 1429-VI-4an bi alderdiak ituna egiten saiatu ziren, aurrez (1427-X-4an) Gaztelako Joan II.a erregeak Tuteran emandako baimenaz baliatuta. Bailarak bere ordezkariak izendatu zituen, eta tratua egin ondoren Konstantza Aiarak 1429-VI-16an Leintz bailarako alkatea eta merioa izendatu zituen: Joan Ruiz

Santa Marinakoa eta Pedro Iribe hurrenez hurren. Gebaratarrek Leintz bailarakoekin egindako itunetik kanpo geratu ziren orduan Oñatiko jaunaren etsai ziren Joan Estibalitz Galartzakoa eta honen suhi Joan Martinez Etxabekoa. Baita hauei Oñatiko jaunaren aurka laguntzen zietenak ere. Itunean leintzarrek batez ere mendietako larre, egur eta basoko ezkur, gaztaina, etab. ustiatzeko abantailak lortu zituzten³.

1429. urte ingurukoak da Milia Lasturkoari egindako eresia. Milia Lasturkoa Arrasateko Pero Gartzia Orokoaren emaztea zen, eta erditzean gazte zela hil egin zen. Orduan Pero Gartzia Marina Arrazolarekin ezkontzeko prestatu zen, baina, Debatik Arrasatera etorrira, Miliaren ahizpak hiletetan eresia kantatu zuen garai hartako ohiturari jarraituz.

“Cer ete da andra erdiaren çauria?/ Sagar errea, eta ardao gorria./ Alabaya, contrario da Milia:/ Azpian lur oça gañean arria./”

Lau ahapaldiko eresiari Santxa Ortizek, Pero Gartzia Orokoaren arrebak, erantzun egin zion bertsoan. Pero Gartzia heriotza hartan errurik ez zuela zioen,



10.6. irudia. Lasturko plaza.

eta Milia etxe on eta aberatsean bizi izan zela ere bai. Besteak beste Koldo Mitxelenak zehatz aztertu zituen Garibai historialariak jasotako bertso hauek¹⁷.

1429. urtean Gaztelako Joan II.a erregea Nafarroako eta Aragoiko erreinuen beldur zen. Horregatik, Fadrike almirante eta lehengusuaren esku utzi zuen itsas armada prestatzea, 1429-IX-7ko gutunaren bidez. Orduan hasi ziren Gipuzkoan eta Bizkaian, besteak beste, itsasontziak gerrarako hornitzen¹⁶.

Gerra-giro hartan gipuzkoarrak Nafarroara sartu eta Leitz eta Areso bereganatu egin zituzten. Denboraldi laburrean egon ziren Tolosaren jurisdikziopean¹⁸.

Gaztelako Alvaro de Luna kondestableak Nafarroako Joan I.a erregeak (Blanka erreginaren senarrak)

10.10. 1430. URTEA

10.10.1. Zumaiako hiri-gutuna berretsita, Gaztela eta Nafarroa gerran, etab.

Zumaiarrek Gaztelako Joan II.a erregeari beren hiri-gutuna berrets eta onets zezala eskatu zioten 1430. urtean. Berez Zumaiako hiribildua sortzeko agiria Alfontso XI.a erregeak 1347-VII-4an eman zien, eta Joan II.a erregeak ere Valladoliden berretsi zien 1430-VIII-4an¹⁸. Agiri horretan lekuko agertzen denetako bat Pedro IV.a Belez Gebarakoa da, Oñatiko jauna, zeinak 18 bat urte izango baitzituen³.

Gipuzkoan urte hartan, 1430ean, Diego Perez Sarmiento zen alkate nagusi¹. Badakigu orduan Gipuzkoako zenbait itsasontzi Gaztelak prestaturiko itsas armadan Mediterraneoan aritu zela borrokan. Eivissa, Mallorca eta Menorca blokeatu egin zituzten, eraikinake raitsie ginz ituztene taz enbaitga leratakoj endea preso hartu zuten¹⁶.

Gerra hartan Nafarroak San Vicente de la Sonsierra, Kabredo, Uxanabilla eta Guardia (azken hau

Gaztelan zituen ondasunak (Medina del Campo, Cuelar, Olmedo, etab.) konfiskatu egin zituen, eta 1429-VI-25ean Nafarroari eta Aragoiri ofizialki gerra aldarrikatu zien².

Hilabete lehenago, 1429-V-15an, Mendekoste egunez, Iruñeko katedralean Nafarroako Joan I.a (Aragoiko Joan II.a izango zena) eta Blanka emaztea errege-erreginak koroatu egin zituzten. Iruñeko Martin Peralta apezpikuaz gain, Kalagorrikoa eta Baionakoa ere elizkizunean ziren. Halaber Orreagako priorrea eta Leire, Oliba, Fitero eta Urdazubiko abadeak¹⁵.

1430ean setio gogorraren ondoren) galdu egin zituen, Gaztelak konkistatuta. 1430-VII-5ean Gaztela, Nafarroa eta Aragoik enbaxadoreak izendatu zituzten, eta Soriako Majano herrixkan elkartu ziren. Bost urterako su-etena sinatu zuten, eta Nafarroak bere tropak mugan mantendu zituen². Gaztelako erreinuak ere ez zuen bere itsas armada desegin. Bi itsasontzi handi eta hoge galera Granadako erreinuari aurka egiteko mantendu egin zituzten¹⁶.

Gipuzkoan 1430-V-31n Batzar Nagusiak bildu ziren Arrasaten¹⁹. Gipuzkoako Ermandadeak berez ez zuen ondasunik, eta gastuei aurre egiteko hauek banatu egiten ziren sukaldeko sistemaren bidez. Hain zuzen herri bakoitzari zegokiona kobratzeko 1430. urteaz gero hasi ziren agirietan “jasotzailea” aipatzen. Lehenago ere seguru asko izango zuten “biltzailea”, jakina. Dena den, biltzaileak ordezkariak izaten zituen Batzarretan zehaztutako dirua jasotzeko. Herrien ordainketak zorrotz kontrolatzen zituen, eta horretarako Kontzejuak zegokion ordainagiria eskatzen zuen²⁰.

10.11. HAMARGARREN KAPITULUKO OHARRAK

¹ TENA GARCIA, M. S. La Sociedad urbana en la Guipúzcoa costera medieval: San Sebastián, Rentería y Fuenterrabía (1200-1500). Donostia, 1977. (201, 373, 374. or.).

² LACARRA, J. M. Historia política del Reino de Navarra desde sus orígenes hasta su incorporación a Castilla. III. alea. Aranzadi argit. Iruñea, 1973. (190, 204, 208, 215, 216, 224, 225, 227-236. or.).

³ AIERBE IRIBAR, R. M. Historia del condado de Oñate y señorío de los Guevara (s. XI-XVI). I. Estudio. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1985. (173, 175, 176, 177, 179, 181, 408-411. or.).

⁴ ALDABALDETREKU, R. Debako udalerría. Alderdi historikoak bertako dokumentuetan oinarriturik (1294-1894). Debako Udala, 1996. (80. or.).

⁵ ORELLA UNZUE, J. L. Instituciones de Guipúzcoa y Oficiales Reales en la Provincia (1491-1530). Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (117, 274, 285. or.).

⁶ ZABALO ZABALEGI, F. J. *El Reino de Navarra en la Baja Edad Media. Algunas consideraciones*, in Historia del Pueblo Vasco 1. Erein argit. Donostia, 1978. (147. or.).

⁷ ONAINDIA, S. Euskal Literatura (I). Etor argit. Bilbo, 1972. (40. or.).

⁸ FERNANDEZ DE LARREA ROJAS, J. A. *Los señores de la guerra en la Guipúzcoa bajomedieval*, in Los señores de la guerra y de la tierra: nuevos textos para el estudio de los Parientes Mayores guipuzcoanos (1265-1548). Iturriak, 2. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 2000. (28, 29. or.).

⁹ IRURITA LUSARRETA, M. A. El municipio de Pamplona en la Edad Media. Iruñeko Udala, 1959. (88, 89, 97, 98. or.).

¹⁰ GOÑI GAZTANBIDE, J. *El Oficial Foráneo de San Sebastián del siglo XIV al XIX*, in Boletín de estudios históricos sobre San Sebastián. Donostia, 1969. (13. or.).

¹¹ STÜRTZE, A. eta beste (Txubillo Taldea). Euskal Hiztegi Historikoa. Gaiak argit. Donostia, 2004. (24. or.).

¹² ELOSEGI, J. *Juntas Generales y Particulares de Guipúzcoa. Índice de las celebradas en los siglos XIV y XV*, in Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País. XXXIV. urtea, 3. eta 4. koadernoak. Donostia, 1978. (542. or.).

¹³ GARCIA FERNANDEZ, E. *“Para la buena gobernación e regimiento de la villa e sus veçinos e pueblo e republica”*: de los Fueros a las Ordenanzas Municipales en la Provincia de Guipúzcoa (Siglos XII-XVI), in El triunfo de las elites guipuzcoanas: nuevos textos para el estudio del gobierno de las villas y de la Provincia (1412-1539). (74, 75. or.).

¹⁴ Oraingo Aretxabaletako Apotzaga-Etxebarri auzoko Landeta baserrian ote zegoen?

¹⁵ GOÑI GAZTANBIDE, J. Historia de los obispos de Pamplona. s. XIV-XV. II. alea. Iruñea, 1979. (489, 492, 507, 515. or.).

¹⁶ LABAIRU GOIKOETXEA, E. Historia General del Señorío de Bizcaya. III. alea. La Gran Enciclopedia Vasca argit. Bilbo, 1968. (75, 76, 79, 80. or.).

¹⁷ MITXELENA, K. Textos arcáicos vascos. Minotauro argit. Madril, 1964. (75-78. or.).

¹⁸ XX. Zestoa. Zumaia. Valladolid. Carta ejecutoria sobre los límites y jurisdicción entre Zumaia y Zestoa, y la pertenencia de San Miguel de Aizarnazabal a la tierra de Saiaz y la de Oikia (traslado). (Valladolidko Kantzelaritzako Artxiboa. Pleitos civiles. Zarandona y Balboa. Pleitos fenecidos. 922/1. (II. koadernoko 468-473. or.).

¹⁹ ORELLA UNZUE, J. L. *El origen de las Juntas de Gipuzkoa*, in Historia de las Juntas Generales y la Diputación Foral de Gipuzkoa. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1992. (32. or.).

²⁰ LEMA PUEYO, J. A. *“Por los procuradores de los escuderos hijosdalgo”*: de la Hermandad General a la formación de las Juntas de la Provincia de Guipúzcoa (siglos XIV-XVI), in El triunfo de las elites urbanas guipuzcoanas: nuevos textos para el estudio del gobierno de las villas y de la Provincia (1412-1539). Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 2002. (73. or.).

